

Zientzia eta teknologia

JOXERRA AIZPURUA

Gure eguzkia erraldoi gorri bihurtuko denean...

SYDNEYKO UNIBERTSITATEKO astronomo talde batek *Nature* aldizkarian argitara eman duenaren arabera, izar erraldoi gorriak zein motakoak diren zehazteko teknika berritzailea garatu dute.

Erraldoi gorriak erretzen duten erregaiaren arabera sailkatzen dira multzo batean ala bestean. Helioko nukleoa erretzen duten bitartean erraldoi gazteak direla uste da, eta izarra inguratzen duen atmosferako hidrogenoa erretzen hasten direnean, erraldoi zaharrak. Bigarren motakoak, azken fasean daudenean, izugarri handitzen dira, eta inguruan duten guztia kiskaltzen dute desagertu aurretik. Gure eguzkiaren kasuan, uste da oraindik beste 12.000 milioi urtetan iraungo duela orain arte bezala, baina hortik aurrera gero eta gehiago handituko da. Hazkunde horretan diametroa 100 aldiz handiago bihurtuko dela estimatzen da, eta Merkurio, Artizarra eta Lurra jango dituela ere bai.

Ikerketa hau egiteko ezinbestekoa izan da Kepler zundak bidalitako informazioa.




3.BP.BLOGSPOT.COM

Osteoporosiaren “errua” daukaten geneen bila

GRANADAKO UNIBERTSITATEKO (Espainia) ikerlari talde batek, kontsulta ginekologikoetara osteoporosi sintomekin azaldutako 2.000 emakume baino gehiagoren historia klinikoak aztertu ondoren, gene zehatz batzuen zantzuak topatu dituzte, batez ere aldaka-hausturekin lotuta daudenak.

100.000 lagun baino gehiagori hausten zaie urtero aldaka Espainiako Estatuan, eta kasu gehienak osteoporosiarekin lotuta daude. Ikerlariek diotenez, oraindik goiz da erabat ziurtatzeko lortutakoa emaitzak zuzenak direla, baina hala izateko probabilitatea oso handia da. Prebentzio neurriak hartzeko bideak zabalduko lituzke horrek.



NUTRICIONCASA, FILES.WORDPRESS.COM

Txernobyleko auzia ez da oraindik amaitu

Fukushimako hondamendia pil-pilean dagoen honetan, alderaketa ugari egin izan dira Txernobylen gertatu zenarekin. Gauzak kontatzen dizkiguten bezala, badirudi Txernobylekoa izan zela eta Fukushimakoa izaten ari dela, baina egia da bai Txernobyl bai Fukushima direla gaurkotasunezko gaiak, biak ari baitira erradiazioa askatzen.

<http://ttiki.com/25710> (Gaztelaniaz)

Denbora luzeegia X izpien aurrean?

Frantziar Segurtasun Nuklearraren erakundeak alarma gorria piztu du Frantziako Estatuko biztanleek jasaten duten X izpien bidezko erradioaktibitatea dela eta.

<http://ttiki.com/25711> (Frantsesez)

Grabitatearen indarra ez da berdina Lurreko leku guztietan

Ikastetxean fisika ikasi genuenean, Lurreko grabitatea berdintzat jotzen genuen hemen, Japonian eta Australian. Baina ez da hala, Lurraren masa ez baitago uniformeki banatuta. GOCE satelite europarrak grabitatearen banaketaren irudi ikusgarriak eskaini dizkigu berriki.

<http://ttiki.com/25712> (Frantsesez)

Babeslea: iametza Interaktiboa

ideia batetik errealitatera



web garapenak



multimedia



aholkularitza



edukiak



interaktiboa
www.iametza.com
T.943 37 67 16